

Ahozkoatasuna, aurten ardatz


Ohiko ziklo eta jardueraz gain, hiru egitasmo berri aurkeztu ditu Euskararen Etxeak bere neguko programazioan: 'Ahoskera Laborategia', 'TopAraba' eta 'Hiruerreketa: euskararen arte-urak' erakusketa.

ERREDAGIZIOA

Urte berriarekin batera, neguko programazioari atea irekiko dizkio Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxeak; 27 jardueraz osatutako egitarau zabal prestatu du datozen hiru hilabeteotarako. Oraingoan, hiru egitasmo berri aurkeztu dituzte: batetik, *Ahoskera Laborategia* dago. UEUrekin elkarlanean, euskara estandarren ahoskerarekin eta, oro har, ahozkoatasunarekin zerikusia duten bestelako aldagaiekin esperimentatzeko laborategia. Ilaski Serranok, Franck Dolosorrek eta Edurne Azkaratek otsailean parte hartuko duten mahai-inguru batekin emango zaio hasiera eta apirilera arte luzanuko diren hiru saioz osatuta egongo da.

Bestetik, *Hiruerreketa: euskararen arte-urak* izeneko erakusketa izango da otsailean. Euskaraz sortzeak dakarren zailtasun eta deserosotasunaren inguruko hiru gogoeta artistiko ekarriko ditu Oihanederrek Montehemoso Kulturunera: Zalao Ipiñak, Zirrikak eta Bigarakoek *Gorri Bisuala*, *Hitz birziklanak* eta *Abere ba* egitasmoak erakutsiko dituzte.

Hirugarrenik, Araban euskarazko sormen esparrua lantzeko *TopAraba* egitasmoa dago. Bi fasetan bideratuko da: lehenengoa, otsailaren 27an egingo den jardunaldiarekin hasiko da; eta bigarrean,




Edurne Azkarate, Franck Dolosor eta Ilaski Serrano izango dira, besteak beste. OIHANEDER

topaketan proposatutako sormen proiektu aukeratuak garatu beharko dira.




Musika eta ikuskizunak
Ohiko programazioari dagokionez, musikarekin lotutako hainbat hitzordu daude aukeran: Lorea eta Maialen Aristegi gazteak izango dira *Egin Leku!* deialdiaren baitan; eta *Eskilarapeko soinuak* alaitzen, ordea, Ainhoa Larrañaga, Ekiza eta Raitx. Ikuskizunek ere ez dute huts egingo: Txakur Gorria kolektiboak *H-Artzetik* ikuskizuna ekarriko du, Mikel Soto *Petti*-ren zuzeneko musikarekin helduko da *Suak*

pizten direnean ikuskizunerako, eta Kamikaz kolektiboko Erika Olaizola *Panpina* antzezlanaren aurkeztuko du. Horrez gain, ez dira faltako *Hitz Adina Mintzo* zikloa, ikus-entzunezkoak edo liburu aurkezpenak.

Oihanederren webgunean dago jarduera bakoitzari buruzko informazioa. Euskararen Etxetik gogorarazi dute gonbidapena aurrez eskuratu beharko dela ohiko bideak erabilita (*oihaneder@oihaneder.eus* helbidera idatzita, telefonoz eskatuta edota *oihaneder.eus* bidez). Ikastaro eta jardunaldietan izena eman behar dela ere gogorarazi dute.




OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA GASTEIZKO KAFE ANTZOKIA 2021 URTARRILA



URTE BERRIAREKIN KULTURA-TXERTO, GUREKIN



13 | Asteazkena · 19:00



24 | Igandea · 19:00



28 | Osteguna · 19:30

► **BI URTE, LAU HILABETE ETA EGUN BAT**
Luis Zulaika, Susana Correal eta Asis Iriondo

IKUS-ENTZUNEZKOA
BEGI BELARRI, ikus-entzunezkoen zikloa

► **H-ARTZETIK**
Poesia musu zapietan
Txakur Gorria
Peru Galbete


IKUSKIZUNA
SASKI NASKI, sorkuntza artistikoen oinarria

► **AINHOA LARRAÑAGA**
EskuMinak

KONTZERTUA
ESKILARAPEKO SOINUAK, formatu txiki kontzertu handiak

Info + Gonbidapenak: **OIHANEDER.EUS**

- 12 • FILMAZPIT • L'Atelier
- 20 • HITZ ADINA MINTZO • AnHitzak
- 21 • EGIN LEKU! • Lorea
- 26 • EUSKALKIEN SAILKAPEN BERRIA • Gotzon Aurrekoetxea eta Jose Luis Ormaetxea "Txipi"



HEDABIDE LAGUNTZAILEAK

ANTOLATZAILEA



OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA
GASTEIZKO KAFE ANTZOKIA

